

HONDARRIBIA / Literatura tailerrak egingo dira Hondarribian

Maite Gonzalez Esnal idazleak zuzenduko ditu euskara zein gaztelera-ko irakurketa taldeak

Hondarribia. Hondarribiako udal liburutegiak ikasturte berriari begira antolatu dituen literatura tailerrak aurkeztu zituen atzo.

Iaz lehenengo aldiz egin zen ekimenak "arrakasta handia izan zuen, Hondarribia, Irun edo Hendaiatik etorritako 40 partaiderekin", esan zuten atzo Xabier Tife Kultura zinegotziak, Kote Gebara liburuzainak eta Maite Gonzalezek, idazle eta tailerren animatzaile denak.

Aurten ere, astean bi egunetan gaztelera- eta euskara-ko, arratsaldeko 15.30etik 17.00etara egingo dira irakurketa talde hauen bilerak, Zuloaga Etxean.

Maite Gonzalez Esnalek esan zuenez, "aldi eta leku anitzetako idazleen obra" irakurriko da aurten, tartean Natalia Ginzburg, Stephan Zweig, Mariasun Landa, Arantxa Urretabizkaia, Unai Elorriaga edo Nagib Mahfuz direlarik.

Izen-ematea

Literatura tailer hauek "mundu guztiari irekita daude eta beharrezko den gauza bakarra, irakurtzeko gogo da", esan zuten antolatzaileek. Izen-ematea doakoa da eta astelehenetik aurrera egin ahalko da, liburutegian, 943111295 telefonoan eta liburutegia@hondarribia.org posta elektronikoen bitartez. >x.s.